

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?

Bezero berriak erakartzeko:

Gure dendetako langileak egongo dira beti bezeroak laguntza behar dutenean, bestetik gure webgunean “bezeroen arreta” izeneko atal bat egongo da. Atal horretan bezeroak gurekin harremanetan jarri ahalko dira emailaz, telefonoz edo momentuzko chat batean beraien arazoak konpontzeko. Halaber, zerbitzu ona eskainiz (alaiak eta jatorra izanez) gure bezeroen poztasuna eragingo dugu eta hauek ahoz aho gure enpresa bere lagunei/familiakoei gomendatuko diete eta horrela bezero berriak lortuko ditugu.

Bezeroak mantentzeko:

Lortutako bezeroak guran erosten mantentzeko erosten duten bakoitzean diru portzentai bat %5 edo halako zerbait bueltatuko diegu hurrengo eskaera egiten dutenerako. Honek eragingo du, haiek eskaera bat egin ondoren beste bat egitea merkeagoa dela pentsatuz. Eskaera bat egiterakoan puntu batzuk lortuko dituzte (eskaeraren kostuari lotuta) gure webgunean erosteko. Eskaera batzuk eginez gero pixkanaka puntu kantitate handi bat lortuko dute eta puntu horiek gure webgunean gastatu ahalko dituzte.